

ERRETERIAKO UDALAK HOMO-LESBO-BI-TRANSFOBIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNAREN HARIRA EGINDAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Gaur, maiatzak 17, Homo-Lesbo-Bi-Transfobiaren aurkako nazioarteko eguna ospatzen da, gogora ekartzeko 1990ean, gaurko egunez, Osasunaren Mundu Erakundeak homosexualitatea gaixotasun mentalen zerrendatik kendu zuela.

Azken urteetan legegintzan aurrerapenak egin diren arren —adibidez, berdintasunezko ezkontzari buruzko 13/2005 legea edo transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko 14/2012 Legea—, oraindik ere urrun dago lesbiana, gay, transexual, bisexual, intersexual eta queeren (LGTBIQ) berdintasuna.

Sexu-orientazioa eta genero-identitatea oraindik ere legeak jazartzen ditu herrialde askotan; izan ere, ILGaren (International Lesbian and Gay Association) eta Amnistia Internazionalaren txostenek adierazten dute homosexualitatea jazartzen dutela 70 herrialde baino gehiagotan, eta heriotza-zigorra duela Afganistan, Brunei, Iran, Mauritania, Pakistan, Saudi Arabia, Sudan eta Yemenen eta Nigeria eta Somaliako zenbait eremutan.

LGTBIQ kolektiboaren eskubideen urraketa hau bistakoa da, geroz eta lege gehiago proposatzen baitituzte LGTBIQ kolektiboaren aurka, adibidez, Errusiar Federakundeetan. Kasu honetan, Errusiak ez du betetzen Europako Kontseiluaren Estatutua, nahiz eta kide den heinean berretsia izan. Halaber, salatu nahi ditugu Txetxeniako LGTBI komunitatearen aurkako kontzentrazio-esparruak eta kolektibo hori torturatzeko erabiltzen diren metodo guztiak. Ezin dugu ahaztu Euskaditik gertuko herrialdeetan ere, adibidez, Marokon, homosexualitatea zigortzen dutela.

Hala ere, ez dugu hain urrun joan behar ikusteko gure gizartean ere ohikoak direla kolektibo honen aurkako erasoak. Azken asteetan ezagutu ditugu Iruña edo Irungo kasuak, eta aurrez, Gasteiz eta Bilbokoak. Azken hilabete honetan jasan behar izan dugu Autobus Transfoboaren homofobia instituzionala ere; izan ere, “Hazte Oir” erakundeak diru publikoa erabiltzen baitu bere kanpainetarako, nahiz eta bere jardunak gorrotoa eta eskubideen urraketa izan oinarri eta bizikidetzaren aurkakoa izan.

Horregatik, guztiagatik, ezinbestekoa da erakunde publiko guztietatik sustatzea LGTBIQ kolektiboaren eskubideak bermatzen dituzten politikak. Kasu honetan arreta jarri nahi dugu hezkuntzan. Nerabe askok aitortzen du bere ikastetxean diskriminazioa jasan duela. Horregatik iruditzen zaigu ezinbesteko lehentasuna dela adingabeak babestea eta pertsona orok askatasunez garatzeko aukera izatea; hartara, neurriak sustatu behar ditugu, bermatzeko ikastetxeak aniztasun sexualerako ere espazio seguruak direla.

Horretarako, hau adosten dugu:

- 1.- Sentsibilizazioko, kontzientziazio eta prestakuntzako kanpaina egitea tolerantziaren eta sexu-orientazio eta genero-adierazpen oro errespetatzearen alde
- 2.- Gure kultura-eskaintzaren bitartez sustatzea gai honen inguruko begirada desberdinak, bereziki liburutegian eta bertako materialetan
- 3.- Babes instituzionala eskaintzea Homo-lesbo-bi-transfobiaren aurkako nazioarteko egunaren ospakizunari, Udalaren balkoian ostadar bandera zintzilikatuta
- 4.- Herritar guztiak animatzea gure herrietan egingo diren mobilizazioetara joatera eta parte hartzera

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DEL AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA CON MOTIVO DE DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA HOMO-LESBO-BI-TRANSFOBIA

Hoy 17 de mayo, celebramos el día Internacional Contra la Homo-Lesbo-Bi-TransFobia, conmemorando que en 1990, tal día como hoy, la Organización Mundial de la Salud retiró la homosexualidad de la lista de enfermedades mentales.

A pesar de los avances alcanzados durante los últimos años en materia legislativa, desde la ley 13/2005 del matrimonio igualitario, hasta la ley 14/2012 de la Comunidad Autónoma del País Vasco de no discriminación por motivos de identidad de género y de reconocimiento de los derechos de las personas transexuales, aún estamos lejos de conseguir la igualdad real para las personas lesbianas, gays, transexuales, bisexuales, intersexuales y queers (LGTBIQ).

La orientación sexual y la identidad de género sigue siendo objeto de persecución legal en muchos países, como constatan los informes de ILGA (International Lesbian and Gay Association) y de Amnistía Internacional que señalan que la homosexualidad está perseguida en más de 70 países, y castigada con pena de muerte en Afganistán, Brunei, Irán, Mauritania, Pakistán, Arabia Saudí, Sudán, Yemen y partes de Nigeria y Somalia.

Estas vulneraciones de derechos del colectivo LGTBIQ se refleja en crecientes leyes contra el colectivo LGTBIQ que se están impulsando, por ejemplo en la Federación Rusa. En este caso Rusia incumple el Estatuto del Consejo de Europa el cual ratificaron para ser miembro. También queremos condenar los campos de concentración contra la comunidad LGTBI de Chechenia así como todos los métodos que se utilizan para torturar a este colectivo. Tampoco hay que olvidar que países cercanos a Euskadi, como Marruecos, también penalizan la homosexualidad.

Pero no hay que ir tan lejos para ver que en nuestra sociedad también son habituales los ataques contra este colectivo. Las últimas semanas hemos conocido los casos de Iruñea o Irun, y anteriormente, tuvimos los de Gasteiz y Bilbo. Y este último mes hemos tenido que soportar además la homofobia institucional del Autobús Tránsfobo, y es que la organización "Hazte Oír" utiliza dinero público para sus campañas, aunque su actuación esté basada en el odio y en la vulneración de derechos y atente contra la convivencia.

Por todo ello es imprescindible impulsar desde todas las instituciones públicas políticas que garanticen los derechos LGTBIQ. En este caso queremos poner la atención en el ámbito educativo. Un alto número de adolescentes declara haber sufrido discriminación en su centro de estudios. Es por ello que creemos que la protección de menores y el libre desarrollo de las personas debe ser una prioridad absoluta, para lo que debemos impulsar medidas que garanticen que los centros educativos sean espacios seguros también para la diversidad sexual.

Para todo lo cual acordamos:

1. Realizar campañas de sensibilización, concienciación y formación en favor de la tolerancia y respeto a todas las orientaciones sexuales y expresiones de género.
2. Fomentar a través de la nuestra oferta cultural diferentes miradas sobre esta temática. Haciendo especial hincapié en la biblioteca y sus materiales.
3. Ofrecer apoyo institucional para la conmemoración del día Internacional contra la homo-lesbo-bi-transfobia izando la bandera arco iris en el balcón del Ayuntamiento.
4. Animar a toda la ciudadanía a que asista y participe en las movilizaciones que tendrán lugar en nuestro pueblo.